




Joxe Mari Telleriak ekoizleei egindako argazkiez lagunduta, erakustaldia eta hitzaldia eskainiko dute Nafarroa etorbideko aretora hurbiltzen direnei

Bertako produktuen azoka sustatzeko eta saltzaileak eta ekoizleak ezagutzera emateko ekimena antolatu da Beasaingo Udala eta Jose Mari Telleria argazkilariaren elkarlanari esker. Behin erretiratu eta Fotoetxe argazki denda itxi zuenetik Telleria argazkilaritzarekin lotutako askotariko ekimenak burutzen ari da Nafarroa etorbideko 23an duen aretoan eta oraingo honetan garaian garaiko bertako produktuen azoka berezia izango da ardatza.


Martxoaren 26an arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara bertako produktuen azokako 5 ekoizle izango dira bertaratuko direnei azalpenak ematen eta galderak erantzuten. Hain zuzen ere, Eugenio Elorza ezti saltzailea, Astigarretako gozogilea (tarta eta bonboiak egiten dituen), Beñat Telleria behi-gazta saltzailea, Maria Dolores Urrretabizkaia lore

saltzailea eta Aranburu gaztandegiko Idiazabal jatorriko gaztagilea. Horietaz gain, Matxinbentako saskigilea aretoan bertan izango da saskiak egiten eta erakusleihoan, berriz, Eugenio Elorza arituko da kandelak egiten.

Ikusleak txandaka

Gauden testuingurua gaudela eta, osasuna babesteko neurriak errespetatze aldera, ordu laurdenero lau pertsonako taldeak sartu ahal izango dira bertara eta ekoizleei nahi dieten galderak egiteaz gain, saskiak eta kandelak egiten dutenei ere galderak egiteko aukera izango dute.

Txandak egiteko aldez aurretik eskatu behar da hitzordua 943 028103 telefonora deituta edo Helbide elektroniko hau spam roboten kontra babestuta dago. JavaScript aktibatuta eduki behar duzu hau ikusteko. helbidera mezua bidalita. Oraingoz badago lekua. Bertako produktuen azokan parte hartzen duten ekoizleen argazkiak dagoeneko jarrita daude erakusleihoan eta apirilaren 11ra arte ikusgai izango dira bertan.



Azoka bereziko ekoizleak euren produktuak ezagutarazten

Azken eguneratzea: Azteazkena, 24 Martxoa 2021 17:27

Argitaratua: Azteazkena, 24 Martxoa 2021 17:26

